



Iturritzaga

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Itúrritza



43°10'47"

2°34'28"

Gerediaga Elkarte / T. Angoitia

"... la casería rústica titulada Yurriozaga... situada en el barrio de San Lorenzo jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con su antusano y horno tres mil doscientos treinta pies cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de piso bajo con zaguan, cocina y cuadras, y de piso principal con dos cuartos pajar y desban..."

DJE 2/45 or. (1866)

Komentutik (**Ikus Mertzedariak**) gertu kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipamenak XVIII. mendean aurkitzen dira, hots, *Yurriozaga* (1704, Bizkaiko su-errolak). Dokumentazioan zenbait aldaera jasotzen dira hurrengo mendeetan, besteak beste: *Yurriozaga* (1825, PE/1825), *Yurriaga* (1857, BUA, Viv), *Yurriozaga* (1906, DJE, 7/ 244. or.) eta *Iturritza* (1967) BUA, CE). Auzotarren artean, *Itúrritza* da ahozko formarik erabiliena.

Baserri-etxe bitxia da, eta jatorrizko etxe zaharra goa barruan gordetzen du. Barrukoa oso kalitate oneko harlanduz egin zuten, eta jauregi errenazentista baten itxurako eraikina da. Aitzitik, XVII. mendean landetxe bihurtu zutela dirudi, eta etxe berriagoa egin zuten, gorputz hori inguratuta. Horren fatxada nagusian sarritan ikusten ditugun hiru gorputzak daude.

Beheko solairua harrizkoa da. Hormak harlangaitzezkoak dira, eta harlanduzkoak, berriz, kantalak. Erdian, egurrezko dintelak babestutako atartea dauka. Gainekoa eta teilatupea, berriz, guztiz desberdinak dira. Egurrezko egitura erabilia jaso zituzten bi pisuak, kantaletako izugarriko tantaiak barne. Hormak adreiluz bete zituzten, eta tarteka, leihoak zabaldu, baita txori-tokiak ere, ganbaran. Horma horiek estuagoak direnez, barrurago daude.

Lariz jauregiaren edo dorrearen antzera, gorputz nagusiari atxikita dauka eskailerentzako kuboia. Teilatua bi isurkikoa da. Etxe zaharra XVI. mendekotzat har genezake, eta berria, aldiz, barrokotzat, hurrengo gizaldikoa. Horrela pentsarazten digute barruko koloma batek, leiho baten erlaitzak eta sarrerako atean dagoen belarridun plaka molduratuak.

toponimia

Izen garden eta Euskal Herrian arrunta Igorren, Zeanurin eta Lazkaon ere badira izen bera duten baserriak. Osagaiak iturri, hitz arrunta, ugaritasuna adierazten duen -tza atzikia eta lekua adierazten duen -aga: "iturriak dauden lekua".



Iturrizaga aldean laian, atzean komentua / Berriz Irudian